



Errenteriako Musika Banda EHU Ignacio Maria Barriola aretoan EHU/UPV-Donostiako Orfeoia saria jaso ostean, 2016/03/11.

Errenteriako Musika Banda, merezitako aintzatespena

“Errenteriako Musika Banda, XV. EHU/UPV - Donostiako Orfeoia saria, Musika sustatzea eta bultzatzea”

JOSU MITXELENA

Batzuetan kultur eragile edo elkarte baten ahalegin eta esfortzuak, merezitako aintzatespena jasotzen du; bere esparrutik kanpo datorkion aintzatespena. Elkarte hori kultur esparruan kokatzen duen aintzatespena. Baina aipatu aintzatespena ez datorkio elkarteak bere osotasunean betetako aurretiko lanik ezean, edota taldea osatzen duten hainbat norbanakoren lan eta ahaleginik ezean. Horretaz gain, elkarte orok bizi du noiz edo noiz bere ibilbidean zehar, katarsi prozesu batean murgiltzeko unea, urteen poderioz elkartearen baitan sortutako prozesu edo sinergiekin hautsi eta elkartearen jarduera

zuzenduko duten irizpide eta oinarriak ezartzeko unea, alegia.

Aipatu katarsi une horietako bat 1998an gertatu zen Errenteriako Musika Kultur Elkartearen, urte horretan, Bazkide Batzar Nagusian aurkeztu baitzen hurrengo 10 urtetarako jarduera eta irizpideak jasotzen zituen plan orokorra, behin 10 urteak igaro ostean, berrikusteko aginduarekin. Egitasmo horrek helburu zehatzetan oinarritutako bi atali erreparatzen zien. Lehen atala, elkarte barrura begira, elkartearen barne funtzionamendua berri eta optimizatzeko asmoz, eta bigarrena, kanpo eskaintza eta funtzionamenduari erreparatuz.



Errenteriako Musika Banda EHU Ignacio Maria Barriola areto sarreran.



Musika Banda kontzertuan Herriko Enparantzan.



Koldo Mitxelenaren jaiotzaren 100. urteurrenean, Jasokunde Andre Maria parrokiari.

Irizpide nagusien artean hauek zehaztu ziren:

- Herriko kultur sarea osatzen duten elkar-teekin, elkarlan eta proiektu komunaren esparruan sakontzea.
- Musika eskaintza berriak diseinatzea, diziplina aniztasunari eta espazio eszeniko berriei erreparatuz, elkartearen kultur eskaintza erakargarriagoa eta ikusleen tarte zabalagoari zabaltzeko asmoz.
- Artxibo prozesuen informatizazioa: partiturak, kontzertuen audioak, kartelak...
- Proposamen eszenikoaren berritzea.
- Gure kultur ondarearen hedapena sustatzea.

Laburbilduz, elkartearen kultur proposamen bai eszenikoa, bai artistikoa zabaltzeko helburuarekin sortutako egitasmoa, diziplina aniztasunari eta elkarlanari erreparatuz bereziki: Herriko Musika Banda, 150 urteko bide luzearen ostean, etorkizunari begira kokatzen duen egitasmoa, alegia.

Baina horrelako egitasmoaren arrakasta jarrapena berraztertzean datza. Honela, 2010. urtean Errenteriako Musika Bandak urrats handia eman zuen bere kanpo eskaintzaren arloan. Parisa jo zuen Musika Bandak, Parisko Eskual-Etxeko Jean Marie Guezalak zuzendutako Anaiki Abesbatzarekin eta Solange Añorga soprano behe nafarraren alboan, *Chants et musiques du Pays Basque* kontzertu bikaina eskaintzeko, Aitor Mitxelenaren zuzendaritzapean, La Cigale antzokian.

Kontzertu hartan jasotako arrakasta eta bizi-penak indartuta, elkarteko zuzendaritza taldeak 90ean hasitako bideari eustea erabaki zuen. Erabaki horren ondorioz, 2014an "150 Urteurrena 1864-2014: Herri Bat, Banda Bat" ospakizun aparta eskaini zuen. Urteurren horri esker gurean izan genituen Donostiako Orfeoia, Easo Abesbatza, Andra Mari Abesbatza, Musikene Banda Sinfonikoa eta Oskorri taldea.

Eta jorratutako bideak bizi dugun une gozora garamatza, hasieran aipatzen nuen aintzatespen publikora. Aurten letra larriz azpimarratu beharreko aintzatespena jaso baitu Errenteriako Musika Bandak, "Musika sustatzea eta bultzatzea" saritu duen XV. EHU/UPV - Donostiako Orfeoia saria (aipamen berezia Xabier Pangua Susaetari sariaren lorpen bidean betetako lanagatik).

Baina gatozen artikulua hasieran aipatzen nuen “aintzatespena, ez datorkio elkarteak bere osotasunean betetako aurretiko lanik ezean, edota taldea osatzen duten hainbat norbanakoen lan eta ahaleginik ezean”. Pertsona ororen lana ez ezik,

talde osoarena beharrezkoa baita, zuzendaritza artistikotik hasi, zuzendaritza batzordearekin jarraitu eta musikari bakoitzaren lanari, elkarlanari esker soilik lor daitekeelako honelako aintzatespen saria.

